

Elkarrizketa Jose Ignacio Mendazonari

Jose Ignacio Mendazonak Ogasuneko Errenta Atalean egiten du lan, aldizkako langile finko gisa. Joan den azaroan, errentako beste hemezortzi lankiderekin batera, Euskara Zuzendaritzak antolatutako trebakuntza ikastaro batean parte hartu zuen. Bere iritziaz galdetu diogu.

Galdera. Zertarako egiten ari zarete errentako aldizkako langileok trebatze ikastaro hori?

Gero eta gehiagotan zergadunek aurkezten dituzten izkribuak euskaraz izaten dira, eta gero eta gehiagotan eskatzen dute euskaraz izateko idatzizko harremanak. Beraz, horrek behartzen gaitu, alde batetik, gure euskarazko ezaguera berritzera eta, beste alde batetik, guk idazten duguna ulergarri izatera. Horretan datza ikastaroa.

G. Zer ikasten ari zarete?

Batez ere hizkera administratiboaren ulermena nola erraztu, eta gure lanari begira erabiltzeko hiztegia eta idatzi motak.

G. Zer iritzi duzu ikastaroaz?

Oso interesgarria da, eta asko erraztuko digu lana euskaraz idazteko momentuan.

G. Zer esango zenieke euskaraz lan egitera doazen departamentuko gainerako langileei?

Horrelako ikastaro bat egitea aukera ona dela euskarazko ezaguera eguneratzeko eta egokitzeko.

G. Lanerako prestakuntza eta trebakuntzarekin batera, beste zerbaiten beharra sumatzen al duzu langile batek euskaran lan egiteko orduan?

Nik esango nuke inportanteena prestakuntza eta trebakuntza dela eta, horretaz gain, bakarrik gogoak behar direla.